tecnalia
Corporación Tecnológica



**Pertsona ezinduen laguntzarako** eta **irisgarritasunerako teknologiei** buruzko nazioarteko biltzarra

www.**abletech**.org

# ableTech'08

TECHNOLOGIES
teknologia irisgarria

## **Pertsona Ezinduen Laguntzarako** eta **Irisgarritasunerako Teknologiei** buruzko Nazioarteko I. Biltzarra: ableTech'08

Tecnaliak antolatutako Biltzar honen asmoa da sektore horretako nazioarteko adituek beren esperientziak trukatu ahal izatea, beste herrialdeen jardunbide egokiekin ikastearren.



Biztanleen zahartzea da Europar Batasuneko herrialde guztiek aurrean duten erronka garrantzitsuenetariko bat. Horrela, azpimarratu behar da teknologia berriak gehiago erabiltzearekin osasun-gastuen kontrola errazago egin daitekeela eta adinekoen ongizatea eta parte-hartze aktiboa hobe daitezkeela.

2050. urterako, Europar Batasuneko 65 urteko biztanleria 2000. urtekoaren bikoitza izango dela uste da; hots, biztanle guztien %30a. Hori dela-eta, osasun-arazoak medio sortutako ezintasun-egoerak biderkatu egingo dira. Talde horrek gizartean zahartze aktiboa izateko zerbitzuak eta produktuak behar ditu.

Era berean, badira 65 urtetik beherako pertsona ezinduak, bestelako zerbitzu eta produktu motak behar dituztenak. Beraz, bi taldeen artean izugarri gehitzen ari den sektore emergente garrantzitsua identifikatu da, eta sektore horri aukera handiko etorkizuna iragartzen zaio



## **Ezagutzak** eta **esperientziak trukatzeko** Topagunea

**Hitzaldiak:**

• Abenduak 10:
Pertsona ezinduen eta adinekoen talde ezberdinen teknologia-eskaera eta bizitza autonomorako nazioarteko ereduen jardunbide egokiak.

• Abenduak 11: Erabiltzaileen eskaerei erantzuteko produktu eta joera teknologikoak. Enpresa-sektore horren egoera nolakoa den ezagutzea eta zer-nolako mugak dituen ikustea,

**Laguntza-produktuen erakusketa**, biltzarkideak merkatuan dauden irtenbideetara lehen pertsonan hurbiltze aldera

Eremu teknologiko horren antzeko **workshop**-ak.

Helburu espezifikoak:

• Pertsona ezinduen eta adinekoen beharrak ezagutzea eguneroko bizitzan behar bezala konpontzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.

• Agente ezberdinak gerturatzea esperientziak trukatzeko eta premiak dauden produktu eta sistemekin alderatzeko.

• Laguntza-teknologien sektorearen eta zahartzearen ekonomiaren egungo egoera eta joerak agertzea.



## Norentzat

Pertsona ezinduentzat edo adinekoentzat produktuak edo zerbitzuak dituzten enpresetako profesionalak

Teknologia-eremu horretako ikertzaileak

Adinekoak eta pertsona ezinduak eta haien familiak

Talde horien elkarteetako arduradunak

Logopedak, terapeutak, errehabilitazioko profesionalak

Unibertsitarioak

Ekintzailetza-kezkak dituzten pertsonak

Berrikuntza, Industria, Gizarte Politikarako Sailetako Herri Administrazioko langileak

Edo esparru horretan interesa duen edonor

tecnalia
Corporación Tecnológica



ableTech'08
TECHNOLOGIES
teknologia irisgarria

BEC.
Bilbao Exhibition Centre
Auditorio
2008ko abenduak 10 eta 11

### Informazio gehiago

ROBOTIKER-Tecnalia (Elisabete Iturregui)
Parke Teknologikoa, 202 eraikina
E-48170 Zamudio (Bizkaia) (SPAIN)
Tel: +34 94 600 22 66
Faxa: +34 94 600 22 99
abletech08@robotiker.es

### Izen-ematea eta logistika

Marsans Eventos (Ziortza, Belén eta Itziar)
Tel: +34 94 428 73 01
Faxa: +34 94 425 52 94
abletech08@marsans.es